

D. Nemesio Etxaniz joan zaigu

Euskal idazleen mundu tipi honian galera handia izan da Don Nemesio Etxanizen heriotza. Azken urteotan ezer guti idatzi badu ere, gerraondoko ekintzetan lehen mailakoa bai zen. Berak gehien landu zituen alorak: olerkia, kanta, antzerkia eta ipuak izan dira, baina itzulpen batzuk ere egin zituen eta euskaraz ikasteko metodo bat ere bai. Lan gaitza Don Nemesiok urte larrietan burutu zuena. Batzuen ustez, kaxka-gogorra omen zen, baina hala behar ere urte ilun haiek ja-sango baziren. Aurtengo urtarriraren 27ak Donostiako etorri zitzaizgun berri beltzak tristuraz bete ginuzen euskaltzaleok.

D. Nemesio, Azkoitian etorri zen mundura 1899ko abenduaren 19an. Lekarotzen eta Comillas-en ikastaroak bete ondorean apetu zen hogebetan urte zituen-erako. Ordurako euskaraz idazten hasia zen. **Arralde**a zeritzan kontu zaharra, Argia asterokoan lehenik eta liburuxka bezala gero, 1923an argitaratu zuen. Handik hiru eta lau urtera, Euskal Esnalea-ren ipui sariak jaso zituen **Oletzer**o eta **Katxin** zuloa-ekin. Baina bere ekintza nagusia gerraondoa hasiko zen.

Nori berea emateko orduan, erabili zituen izenordeak kontuan hartzekoak dira: **Erratzu**, **Artiz** (ar Xabier eta Amillaitz bereziki), eta lanik gehienak argitaratu zituen aldizkariak, **Argia**, **Euskal Esnalea**, **Euzko-gogoa**,

Egan, **Zeruko Argia**, **Oleri** eta abar.

1950ean **Nola idatzi euskeraz?** liburuxkarekin gazteeri laguntza ona eskaini zien hasieratzen. Urte berean eman zuen Kristau ikasbide beriotan, eta urte bete geroago **Kanta-kantari** liburua, jolas eta kantak ikasteko egina. Beste urte bateren epean, 1952an, bi antzerkidun liburuxka, **Izoko aberatsa** eta **Irulearen negarra**, bata umorezkoa eta bestea trajikoa, euskara errazte eta elkarrizketa bizkorrez. Garai hartarako harrera ona izan zuen. 1958an, **Euskal antzerkiak-Kontu-kontari** deitu liburua batean beste lau antzerki (Gabak zekarren eguna, Maite ere... neurritz, Zoitzean bizia eta Gabon-zauria) eta bi ipui luze (bata P. Mémérie-ren Mateo Falcone eta bestea D. Nemesio beraren Ollasko-iturri). Antzerki horietako batzuk errepresentatuak izan ziren.

Itzulpenetan ordea, **Proper Mémérie**-ren ipuiaz gainera, Juan Ramón Jiménez eta Gabriela Mistral-en poesiak, Ruiz de Añibaroren **Mujeres de Berrigoria** antzerkia **Ito edo ezkundo** (1967) izenburuz, eta Jacques Bondallaz-ek laburpenaz eta irudiz haurtentzat argitaratu zuen **Biblia zaharra: Itun zerreko kondaira** bi liburuxkatan (Argitaratzeale, Les Moulineaux. Seine, 1956-1960).

Lur berri billa (1967) haren lanen muestra gisako bilduma bat baizik ezia. Landu dituen jenen-

roetatik zerbait agetzen du: antzerki, eleberrri, ipui, irratsaio, olerki eta kanta. Bere poemarik luzeenetako bat Iparragirri eskaini zion "Euskal egazi" izenekoa da, 24 bertsoz osatua eta liburua horian bildua.

Bere obratan beti agertzen zuen garai hartako idazleetan hain nekez nabari zen bizitasuna. Bere olerkigintzaren goi mailak berrogetahamargarren dekada hartan ezagutu zen. Garia berean idatziak dira euskarazko lehen irratsaioak ere. Handik laster burutu zuen euskaraz ikasteko **CCC-ren Método radiofónico** (Donostia, 1961) hura ere. Urte haietako kultur aldizkarietatik ikus genezakeanez, D. Nemesio ez zen lo egon, egile eta eragile izan zen, eta garaiko giroagatik eta euskaltzaletasun suharraren eraginez, modan jartzien ziren kanta berrieri euskarazko letra jartzien zion eta maiz ber berak kantatzen zituen, naz ospakizunetan edo naz plazetan; berrikeriak euskaraz ahalizteko ez bai zuen inongo lotsarik.

Bere izakeraz ez zen inolako molde edo arau hertietan sar ahal izateko gizona. Artista eta liberal jitea zuen. Honegatik, gerraondoko gure literatur ekintzak zuzpertzitua eta era berritzen gizon garantzitsua izan zen. Labegeri berak baino lehen eman zion euskal kanta berriari ha hasiera, ez bakarrik soinu berriak hartuz, baizik, inoiz, soinu berriak ere asmatuz. Eta, besteak beste, ga-

rraondoko giro itogarri hartan, Guipuzkoako gobernadorei egin zizkiken gutun publikoak hots handia izan zuten eta herri kontzientzia sortzaile euskaldun askoren baitan. Eta, gauza gutzien gainerik, D. Nemesioren inork ukatu ezinezkoa, bere zintzotasuna.

1955etik Euskaltzaindiko ur-gazlea zen eta 1979an ohorezko izendatu zen. Goian bego gure adiskide maitea.

Juan SAN MARTIN

El pasado día 27 de enero murió en San Sebastián el escritor don Nemesio Etxaniz. Es sorprendente lo poco que se ha inmutado el mundillo cultural vasco en una hora de aparentes reivindicaciones. Una vez más se pone de manifiesto la desproporcionalidad entre lo que se airda políticamente y lo que de verdad se asimila culturalmente. Y, como desconozco el baremo por el que se mide a un "vasco universal", comenzaré por decir que don Nemesio hizo traducciones de Prosper Mérimé, Gabriela Mistral, Juan Ramón Jiménez, Jacques Bondallaz y otros. Pero su universalidad, como hombre creador, parte de su propio estatus, de la misma manera que el universo se compone de una pluralidad compuesta por esa amalgama que forman los pueblos, sin exclusión.

La gran obra de Etxaniz no está en el euskara alguna genios de la literatura su propia creación dramaturgo, misa En los primeros cada del cincuenta Nemesio alcanzó creativa en poesía recuando y la me exento de profun contenido y la me obras teatrales ma dad humana del acaba de fallecer. sus guiones radio los primeros bro neno de la lengua a la que se prece soterrada, y los m que él escribio tazos arrancados realidad de nuest obra antológica (1967) c itituye mensional de este Don Nemesio en Azcoitia, en dios en Lecárro años, y en Comil rarse en teología. cibir en vascue veintitres años y esplendorosa ha periodo de postec que recibió los pres to de Euskal Est 1927, fue galard sas veces, y era honor de la Real la Lengua Vasca-

Zalduondoko Ihaunteria

Zilegi ahal da hilda dagoen ohitura bat berpiztea? Heriotze horrek ez ahal du ohituraren abarrend aldetikako zabarkeriarik adierazten? Zergaitik hil zen? Eta zertarako gorpuztu hauts besterik ez dena? Hona hemen edozeinek bere buruari egin diezai-zkiokeen galderak. Eta, seguru asko, erantzunik aurkituko die. Baina denak konforme egongo ahal ginateke arrazoiak aztertuko bagenitu?. Ezetz uste dut.

Dena dela, ba da hoietako ohiturarik eritzi gutzietz era berdinean epaituko luketeena. Indar-tuki izan dira berreskuratuak, oinarri historiko sendo baten gainean, eta herriaren baloreak, nolabait, azaltzen dituzte. Ahan-duzrak ez ditu oraindik, zorionez, garaitu eta jabeak - herria - bere ondasuna aberastu nahi du, kasu hauetan ohituraren berpizkundeak kultur-hedapena adierazten baitu. Beharrezko baldintza herri jabe-dunak ohitura bere osotasunak berreskuratu nahi izaten datza. Ahal den neurrian, behintzat.

Eta ohitura hoietako bat Zalduondoko Ihaunteria dugu. Beste behin ere aitortu dudala deritzaiz, baina -badaezpada ere- Zalduondoko Arabako kultur mugimendu-erudirik bikatena dela ezagutarazi nahi nioke irakurleari. Bertako Kultur Elkarteak urtean zehar erazten dituen ekintzak ez dira inongo beste edozein herriatan hain errez ematen. Erlait-boki, jakina, Zalduondok iazko Marixoaeren lehenengoan, 126 biz-tanle baitituen.

Zalduondoko Ihaunteria buruz asko idatzi da azken urteotan. Eta ez nolanahi, gainera. Ospakizun honen gain dena esanda dagoela uste dut. Baina, behar bada, zutabe hauetatik ohitura honen zen-bait xehetasun ematea gutziz ko-

menigarri dela deritzaiz. Ituren, Zubieta, Lanz, Tolosa eta beste zenbait herrietako Ihaunteriak ezagutu arren euskaldun xheak ez du - ene eritzi - Zalduondokoa- ren berririk izan. Eta merezi du ezagutzek.

Errege egunetik Hausterregun arte den harori Ihaunteri esaten zaio. Bitarte honetan jai eta zere-monika berezi batzu ematen dira. Ospakizun hauek sortzen ditu ohitura.

Duela bederatzit urte Zalduondoko Ihaunteria gogoetako kutxatik ateratzen, kultur erakuspen hau herriari eskaini ahal izaten da. Eta aintzinaro erara antolatuta da gehiena, dena lortzea ezina izan baita. Ihaunteri-igandean erazten da haro berrian, lehen -leku gehienetan bezala- asteartean egi-ten bazen ere. Baina noan jai honen berezitasunik aipagarri-kan azaltzera:

Eguneko pertsonariak garantzitsuen "Markitos" da. Zurezko egitura baten gainean, eta barrukoa irazte bete ondoren, alkandora, frakak eta zamarra ipintzen zaizkion panpina dugu Markitos. Buruan txapela eta abarkak jantzita gero, arraultze-azal eta luma koloredunaz eginiko lepoko bat ezartzen diote.

Igande goizean eta asto batean gainean Markitos herriko kaleetatik zehar izaten da erakutsia. Tsitulariari eta Zalduondoko umet-ria ditut lagun. Txaranga batek -iaz Aguraingoa- "Zalduondoko Ihaunteriak" marixa jotzen du, behin eta berriz. Herriari ostera emanda gero Lazarraga jau-regi ondoko lautadaxoan jaso den zutoin batetik isekiten dute panpina.

Arratsaldeaz ospatzen da jaiaren zatirik nagusia. Markitos-en oi-netara herri gutzia eta jaiaren

erakarpinak eraginda Zalduondoraino iristitako ikuslarrak bilduko dira. Aurretik herriko mutilak zomorroz jantzi dira: porrero deitzen zaie. Hoietako bi lastoz berritiko zaku banatan doaz, gerrian zintzarri batzu daramatetik. Markitos zutoindik jaitsi egiten dute idi-gurdin batetan ipintzeko. Hasten da kaleetatik zeharko bigarren ostera, txaranga martxari ekiten diolarik.

Ibilaldi honetan berezi daitezkeen pertsonalak hauek dira: **hartza**: larraz estalirik eta lehen aipatutako zakuetako porreroak biltzaitez aritzen dena; **ardia**: **errutzaria**: zamarrá urratu eta makil batez egindako erratza eskuan daramana; **errauts-biltzai-lea**: aurreko urteko panpinaren errautsak ontzi batetan daramatzana; **atsoa**: euskal ihaunteri gutzietako zaldikoaeren hartzarena; **sermolaria**: gurdian dagoen haziotar batetan izkutaturik doana eta, otarra pulpiztatuz harturik, Markitos-en aurrakoa hitzaldia irakurriko duena.

Herriko plazara tritsi da jarraigoa, Markitos epaitu behar da. Txiltasuna egin ondoren honela hasten da sermolaria: *Sea por siempre alabado todo vino generoso, Que sea puro y no esté bautizado.*

1897tik ezagutzen den hitzaldi luzea irakurtzen du sermolariak. Erdi txantxetan erdi serioiki eramandako epaita da Markitos errukarriari egiten zalona. Sermolariak Markitosen erreketak eskatuko du eta hara bilduko herriak txalo eta aligara haundiorartu egingo du hizlariaren eska-bidea. Lehen kartuxoz eta orain gasolinaz erretzen da panpina. Jendeak, Ihaunterietako azken astiemate bezala, dantzari ekiten

dio, Markitosen inguruan soka-dantza osatzen delarik.

Markitosekin batera jaita eta alaitasuna joan dira. Garizuma atean dago. **José Mari VELEZ DE MENDIZABAL**

¿Hasta qué punto es licito dar de nuevo impulso a una costumbre que ha sido relegada de la práctica del pueblo que la vio nacer? ¿Por qué ha muerto? ¿Y para qué volver a dar forma a algo que no es más que, en el mejor de los casos, recuerdo? Estas son algunas de las preguntas que nos podemos formular ante la noticia de que se intenta poner en marcha una celebración abandonada en el tiempo. Las respuestas abarcarían un amplio abanico de opiniones.

Pienso, no obstante, que hay costumbres que han merecido y merecen ser recuperadas, ya que forman parte del acervo cultural de un pueblo, y al haber por un motivo u otro desaparecido pueden ocasionar una pérdida irreparable en el patrimonio de aquél. Afortunadamente no todas han sido olvidadas y se está en condiciones de poder ofrecerlas de nuevo al pueblo que las perdió. Está en éste, y sólo en éste, el aceptarlas o no.

Uno de esos pueblos que trabajan denodadamente en busca de su identidad es Zalduendo de Alava, 126 habitantes de hecho en el último censo, que ha vuelto a recuperar hace aproximadamente nueve años su Carnaval "perdido" desde el comienzo de la guerra del 36. Mucho se ha escrito sobre este Carnaval. Pero creo que merece la pena dedicar un rato a volver a comentar sus características más significativas, que -de acuerdo con toda una tradición secular vasca- son re-

flejo de la manteca sar popular.

El personaje principal es Marquitos, un trapo y relleno del Domingo de Cuaresma, que se guantea en martes -es pasado del pueblo, a lo largo y al que siguen una tiva chistutaria y chiquillera. Una vuelta alrededor de Marquitos es colgarlo o poste colocado del palmarra.

Por la tarde los blo se disfrazan de Marquitos, y se colocarán en un con el que volverá a las calles hasta llegar donde se realiza contra Marquitos.

Son personajes gunda comitiva el barrendero, el preboste y los mozos de sendos sacos de en sus cinturas. A todos éstos se los visitantes llevar el acto, que se al son de la "M" val de Zalduendo por una charanga.

Ya en la plaza el que se recoge a Marquitos, el pueblo hoguera. El pueblo acoge la solicitud de Marquitos y preboste solina y preboste dor del muñeco sokadantzara. Es el Carnaval. La C puertas.